

Marga Anzueta Martinez

PASAI DONIBANEKO
LIBURUZAINA



LIBURUAZ GAINDIKO IRAKURKETA

“Etxean bezain goxo, lasai eta eroso egoteko lekua da Ubera, baina komunitatea biltzen duena. Giroen arabera banatu ditugu txokoak: zarata sortzekoa, talde lanak egitekoa, lasaiagoa dena eta isiltasun osoa eskatzen duen gela. Lekua oso erakargarria da: kristalezko paretak, moketa, itsasontzi itxurako altzaria, sofak, gurpildun apalak, kroma, proiektorea, hondarrezko mahaia, etab. *Itakara bidaia* olerkiak dioen bezala, helmugaz baino bidaiaz gozatzea da onena”.

“Egun informazio gehiena poltsikoan dugu, zerbait gehiago eskaini behar du liburutegiak”

Urtebete luze dauka Ubera liburutegiak (Pasai Donibane). XXI. mendeko jendartearen beharrei egokitutako proiektua da, liburutik harago luzatzen duena begirada. Kultura dinamizatu eta sortzeko txinpartak piztu nahi ditu, eta horretarako dinamikak sortu. Hantxe aurkitu dugu Marga Anzueta Martinez liburuzaina, bata eta bestearekin hizketan.

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE **IZARO MARIEZKURRENA ETXABE**

Garai berrietara egokituz gero, nolakoak izan beharko lirarteke liburutegiak?

Gizartea aldatu da eta liburutegiak krisian daude. Egun informazio gehiena poltsikoan dugu, beraz, beste zerbait bilatu behar dugu. Entziklopediak kontsultatu, argitaratutako azken nobela hartu, etxera eraman, ikasi eta isilik egoteaz gain, hamaika gauza eskainiko dituen liburutegia. Denontzat erakargarria eta denon beharrak beteko dituen behar du.

Zeintzuk dira Uberaren ardatzak?

Informazio beharrak asetzeaz gain, topagune bilakatzea eta horretarako bideak sortzea, gure historia eta kultura oinarri hartuta. Herritarrek elkar ezagutu eta ezagutza partekatzea da helburua. Liburutegi bizia nahi dugu. Pentsamendu kritikoa garatu, kultur dinamikak sustatu, sormena landu eta hori guztia ondo pasatzearekin lotu. Kontsumitzaile huts izate-tik sortzaile bilakatzeraz goaz.

Ubera baino lehen, zer zegoen herrian?

1970ean Itsas Mendi kultur elkar-

teak herri liburutegia sortu zuen. Beren egoitza erabili eta boluntario aritzen ziren lanean. Udalak liburutegia beregain hartzea lortu zuten 2006an, espazio bera erabiltzen jarraitu arren. Ubera berritzailea dela esango dugu, baina hemen beti egon da komunitatearekin lotura. Haiei esker dago gaurkoa irekita.

Nolakoak izan da Uberaren eratze prozesua?

Itsas Mendiren egoitzan ginela, kultur eta gizarte eragileekin hausnartzeko topaketa egin genuen, baita herritar eta haurrekin ere. 2014an behin betiko espazioa eman ziguten, eta espazio hutsa nola bete erabaki behar genuen. 2016an bisita gidatuak egin genituen, beste liburutegietako irudiak jarri, haurrei planoak marrazteko aukera eman eta hainbat dinamikaren bitartez ideiak jaso.

Ereduak bilatzerakoan, non jarri duzue begirada?

Ipar Europako proiektuak oso interesgarriak dira, Finlandiako Aarhus liburutegia kasu. Bestetik, Bartzel-



"LIBURUTEGI BIZIA NAHI DUGU. PENTSAMENDU KRITIKOA GARATU, KULTUR DINAMIKAK SUSTATU, SORMENA LANDU ETA HORI GUZTIA ONDO PASATZEAREKIN LOTU".

Ionan esaterako, arkitektoak ari dira liburutegiak diseinatzen; haietako batean sukalde bat eraiki dute eraikinaren erdi-erdian. Guk, ordea, ez dugu hainbeste baliabide. Horregatik, Txileri erreparatu diogu; baliabide gutxirekin ateratako proposamen ederrak dituzte. Liburutegia beti ikusi dute bizia eta espazio fisikotik harago doan zerbait bezala, gurditxo batekin plazara liburuak eramanez, adibidez.

Zuek zein baliabide dituzue?

Hau udal liburutegia da, herri mailako proiektua. Pasaian, gainera, lau daude eta bat gara horien artean. Funtsezkoak izan dira herritarren parte hartzea eta babesa.

Zein proposamen atera dituzue aurrera?

Lankidetzak egin ditugu. Albaola Itsas Faktoriako kideekin batera itsasontzi formako altzari bat egin genuen, haurrek liburutegi barruan halakorik nahi zutela proposatu zutelako. Haurrek maketa egin zuten ikastaro gidatu batean eta adituek eraiki. Kuxinak ere herriko amonek josi zituzten eta haurrei josten irakatsi. Horrez gain, Etxean Bizi

programarekin topaketa bat antolatu genuen, non 12 urteko haurrek jolasak antolatu zituzten adinekoekin jostatzen. Herriko ilustratzaile batekin marrazketa ikastaroa hasi dugu baita.

Historia eta kultura presente dituzue.

Garrantzitsua da. Duela hiru urte Gau Beltzari forma ematen hasi ginen. Festa gure kulturaren oinarritzea da proposamena. Liburutegiaren ardatz bat ere bada kritikotasuna bultzatzea: Zer da Halloween? Zer zen egun hori gure herrian? Aitzakia bat da gure nortasunaz jakiteko, eta izateko.

Dinamika batzuek hartu dute bizitza propioa.

Prozesuan talde bat sortu zen: Bibliotekaren lagunak. Elkarrekin lan egin dugu uneoro. Honen barruan Sanjuandarren Oroimena taldea sortu da, herriko aizona-amonon testigantzak bildu nahi dituen. Udaleko baliabideei etekina ateraz, Hugoenea sormen espaziora datozen idazleekin kafe tertuliak ere antolatzen ditugu. Haurren taldea ere badago: liburutegia apaintzen dute eta pijama festa ere antolatu dute.

Pijama festa liburutegian?

Ginkana bat egin genuen liburuekin, idazleekin eta pistekin. Beldurrezko istorioak ere kontatu genituen. Oso bitxia izan zen, lokartu baino lehen denak irakurtzen jarri ziren. Hori da helburua: bat-batean egindako gauza batetik zaletasuna sortzea.

Haurrak bai, helduak ere bai. Non dira gazteak?

Erroka zaila da. Erakargarriak diren ekintzak antolatu arren, hurbiltzen diren gehienek ez dute liburutegi klasikoaren kontzeptuarekin hausten, ikastera eta lanak egitera datoz. Baina egia da gero eta gehiago datozela. Prozesu bat da.

Proiektu honetan zein toki dute liburuak eta literaturak?

Helburua ez da bakarrik liburuak irakurtzea, ezagutza trukitzea eta ikastera edo irakurtzera bultzatzeko grina piztea baizik. Eskolekin lankidetzak handia egin beharko litzateke, literatura irakurtzen jakiteko heziketa bultzatze aldera. Jendearen inplikazioaren arabera izango da hemendik aurrerakoa, gure aldetik jarritakoaz gain, komunitatearena ere bada ardura. ●